

# noaua

**Covid-19:  
Murrizketa berriak  
iragarri dituzte**

**Laburbirak bederatzi film  
labur ekarriko ditu igande  
honetan Sutegira**



**“36ko gerra galdu zutenen  
memoria berreskuratzera goaz”**



**NOAOA**  
BIDAIAK

Hipodromo Etorbidea, 10  
LASARTE-ORIA. Gipuzkoa

**943 37 36 13**

Ordutegia:  
**09:30-13:30**

Aurretiko hitzordua beharrezkoa da

**info@noaoa.eus**

**G15** GIPUZKOA  
HIGIEZINA  
ELKARTEA



HIGIEZINA | INMOBILIARIA

**ALOKAIRURAKO PISUAK BEHAR DIRA,  
ESKAERA HANDIARENGATIK!**

**ALOKAIRU SEGURUA**

Zure etxerako inkilino bikaina  
aurkituko dugu,  
12 hilabeteko errenta bermatua.

Etxebeste Kalea 15 - USURBIL 688 739 733 info@g15usurbil.com



**ASEGURU ARTEKARITZA  
ETA GESTORIA ZERBITZUA**

**Telf: 943 37 11 18 Mugikorra: 672 23 83 01**   
**pikabea@pikabeaaseguruak.com**

Uzturre Plaza, 8 Lasarte-Oria J-0078EUS

## Albisteak iruditan

# Esteban Elizondo organojolearen kontzertua

**E**steban Elizondo euskal organojoleak kontzertua eskaini zuen Salbatore elizan. Euskal Herrian egin zituen organo ikasketak eta hainbat orkestra famaturekin aritu da lanean. Atzerrian ere hainbat herrialdetan eskaini ditu kontzertuak; Amerikako Estatu Batuetan, Kanadan, Japonian, Brasilen, Errusian, Aljerian edota Kolonbian.

Urriaren 10ean Usurbilen eskaini zuen organo kontzertuan Johann Sebastian Bach, Jesus Guridi edota Tomas Garbizu musikarien piezak jo zituen, eta entzule batzuk aukera izan zuten organoa ikustera igotzeko.



Johann Sebastian Bach, Jesus Guridi edota Tomas Garbizu musikarien piezak jo zituen.

## Laburrean

### Asteburu honetan, ordu aldaketa

Negu girora egokitzeko unea heldu da. Erlojuen orratzak aldatu beharko ditugu asteburu honetan: igande goizaldeko (urriak 25) 3:00etan 2:00ak izango dira.

### Gripearen aurkako txertaketa

Urriaren 13tik hasiak dira jartzen gripearen aurkako txertoa, bereziki arrisku taldeei. Urriaren 31tik aurrera herritar orori. Aurrez hitzordua eskatu anbulatorioan: 943 362 013.

### Berrogeialdian daudenentzat oharra

Udalak atez ateko sistema egokitu du Covid-19a izan edo berrogeialdian dauden etxeetarako. Kasu horietan, berebiziko garrantzia du Atez Ateko bulegora deitzeak: 900 776 776.

# noaia

Kultur Elkarte  
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil  
943 360 321 ||| elkarte@noaia.eus ||| www.noaia.eus  
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:**  
Idoia Torregarai.  
**Aldizkariko koordinatzailea:**  
Imanol Ubeda.  
**Idazkaria:** Alaitz Aizpurua.  
**Disenua:** Erroit S. L.

**Erredakzio kontseilua:**  
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

**Publizitatea:** Beatriz Alda,  
publizitatea@noaia.eus

**Banaketa:** Iñaki Irazusta,  
Iban Maritxalar.  
**Tirada:** 2.930 ale.  
**Lege-Gordailua:** SS-668-96  
**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu  
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

**Harremanetarako:**  
erredakzioa@noaia.eus



## Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak  
Euskal Herrira!



Alazne Arruti Bengoetxea

## Zapatak eta zapataria

**D**uela ez asko, Maya Galbeirak, Guinness errekorra gainditu duela jakin da. Surfista brasildarrak, lehendik ere bereganatua zuen emakumeen artean olaturik handiena surfeatu izanaren errekorra, baina aurtengoan haratago joateko aukera izan du. Izan ere, otsailean, Praia do Norte (Portugal), 22,4 metroko olatua menperatu zuela ondorioztatu du Kalifornia Hegoaldeko unibertsitateak, eta honenbestez, aurten inork surfeatu duen ur-masa handienari aurre egin diola zehaztu da.

Agian, garai pandemikootan, olatuak metrotan neurteza bitxia irudituko zaio baten bati. Baina jakin behar genuke, kasu honetan ere, azterketa zientifiko baten beharra izaten dela neurketarako. Dena den, kokatu ezinean dabilen orok, sarean zintzilikaturiko irudiak ikusi besterik ez luke ekintzaren nolokotasunari benetako neurria jartzeko. Ziur aski, kostako zaio ileak azalera makurtzea. Itsaso ilunaren handitasunak, errespetua sortzen baitu bere baitan. Dena den, ozen eta azkar pentsatzen hasita, Maya berari, artisau izateko zer falta ote zaion pentsatzen jarri naizenez, aitzakia honetatik abiatuta, aspaldian bueltaka dabilkidan gaiari



“Nahiz eta ekintza gehienak mekanizatu ditugun, badira katebegian ordezkatu ezin diren lanak”.

### ALAZNE ARRUTI

**“Zorionez, txikitatik izan dut eskuz lana egitearen garrantziaz jabetzeko aukera”**

heldu nahi nioke.

Zorionez, txikitatik izan dut, eskuz lana egitearen garrantziaz jabetzeko aukera. Izan lurra lantzerako orduan, zein ingurukoren ordaindu gabeko edota soldatapeko lan-jardueretan. Eta nahiz eta ekintza gehienak mekanizatu ditugun, badira katebegian ordezkatu ezin diren lanak. Ikasketarik gabeko aitona-amonek, ikasketez gainez egindako ilobei erakutsi beharreko gauza asko ditugu kontabilizatu gabe. Eta harea eskuetan nola, jakintza ihesi sentitu dezakegun arren, esango nuke neurri handi batean, behar hau baztertuaz ekonomia zirkularra edota

berrerabilpenaren kultura gutxiesteko modu sinplea elikatu dugula.

Akorduan baino, eskuetan darabiltzat oraindik aitonak egindako eskuareak. Apurtutako plastikozko erratz eta fregonei ordezkaturiko egurrezko kirtenak. Oroimenean, Ama eta amonak jostun izan gabe, baina beharrak erakutsita, han-hemenka erantsitako petatxuak. Eta duela gutxi ikasi dut, osabaren eskutik, larruzko gerriko berria nire neurrira apropos egokitzeko modu egokia.

Hala eta guztiz, bizitzaren gauza sinple eta ederrok jasotzeko aukera izanagatik, kezkatu egiten nau, halako hainbat gauza barneratzeko gaitasun ezak. Barneratu ez ezik, haietaz jabetzeko gai ez izateak. Beharrak baino, kasualitateak eraginda bizi garenen sentsazioa baitut.

Urruti gabe, hona hemen

lehenago asteko pasarte bat. Neguari aurre egiteko beharra sentituta, gordeak nituen txamarra eta oinetakoen artean nenbilen igerian. Horien artean, banituen oso gustuko nituen bota labur batzuk. Urte pare bat edo gehiagoz ibilia, eta dagoeneko oinari ezin apropos egokituak. Leihotik kanpora hotz giroa usmatu eta gogo biziz heldu nien, zer moduz jarraitzen ote zuten jakiteko.

Baina zapata zolari begiratu eta, urte luzez amak egotzi izandako hanka oker izaera berrestu nuen ostera, oinen barrualdeak kanpokoekiko nabarmen akituak zeudela aztertuaz. Lehen pentsamenduan, berriak erosi beste aukerarik ez nuela ondorioztatu nuen, eta bai alfertu aurretik, kalera irten ere. Iaz, oinetako berberak noiz nahi ikusi nituenez, esperantzaz gainezka sartu nintzen dendara. Baina nire harridurarako, “ez maitea, aurten ez dituzte atera” goxo bat jaso nuen bueltan. Beraz, errendituta, beste batzuk aukeratu eta autorantz abiatu nintzen. Etxeraterako ordea, herriko zapataria eraman besterik ez nuela errepikatzen nion behin eta berriz neure buruari. Beraz, aurten, konpondutako boten eta berrien arteko norgehiagokan jardungo naiz. Ea hurrengoan.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

### Komikia



# Jatorri aniztasunaren bihotzean elkarbizitza landu nahi du Udalak

Urtero antolatzen ditu Udalak, bai eta elkarre batek edo bestek ere jatorri anitzeko pertsonak bildu eta lanketak egiteko ekitaldiak. Urteroko ezinbesteko zita, adibidez, jatorrizko herrietako gastronomia dastatzeko aukera. Hari horri tiraka, lanketa sakonagoa egin nahi du udalak, eta proposamenak biltzeko bilera irekia izan zen lehen urratsa. Urriaren 15ean, Agurtzane Solaberrieta alkateak bideratuta hasi zuten bidea.

Jatorri euskaldunekoa da Usurbilgo biztanleen gehiengoa, %82,6. Gainontzeko ia %18k Euskal Herrikoa ez den jatorria du. Horiematik gehienak europarrak dira %12,2; gehienak Espainiatik Usurbilera etorriak, bai eta beste herrialde batzuetakoak ere. Aipagarrienak multzo honetan errumaniarrak. Amerikarrek usurbildarren %3,8a osatzen dute, eta afrikarrek berriz %1. Lehenak jatorriz Nikaragua, Ekuador eta Kolonbia eta Hondurasetik etorriak dira, batez ere; bigarrenen kasuan, aldiz, gehienak marokoarrak dira. Gutxien asiarrak ditugu gure artean, %0,4 baino ez. Ozeaniarrik bat bera ere ez dago.

Datu kuantitatiboak eskuan, udala ikerketa kualitatibo bat egiten ari da Aztikerren bidez. Elkarriketa sakonak egingo dizkiete ezaugarri zehatz batzuk betetzen dituzten herri-



Jatorri aniztasunaren gaineko esperientziak, diskurtsoak eta iritziak bilduko ditu Aztikerrek, eta behin diagnostikoa eginda, herritarren arteko elkarbizitzan eta interakzioan sakonduko dute.

## IKERKETA MARTXAN

**“Datu kuantitatiboak eskuan, Udala ikerketa kualitatibo bat egiten ari da Aztikerren bidez”**

tarrei: espresuki gonbidatuko dituzte herritar horiek azterlanean parte hartzera, aurrez definitutako 11 soslaien arabera aukeratuko dituztenak. Jatorri aniztasunaren gaineko esperientziak, diskurtsoak eta iritziak bilduko ditu Aztikerrek, eta diagnostikoa behin eginda herritarren arteko elkarbizitzan eta interakzioan sakonduko dute. Ikerketa behin amaituta, testigantzak ikus-entzunezko batean jasoko dituzte erreali-

tatearen irudia denen eskura egon dadin, eta 2021 urtearen hasierarako publikoki aurkeztuko dituzte ikerketaren emaitzak.

Aurreikuspenen arabera, Covid19ak ekarri duen osasun krisiaren ostean krisi ekonomiko eta etorriko da, eta krisi egoeratan arrazismoa esponentzialki hazten dela gogorarazi zuen alkateak: “Inoiz baino garrantzitsuagoa eta beharrezkoagoa elkarbizitzan inbertitzea: egingo dugun inbertsiorik garrantzitsuena dela esango nuke”. Elkarbizitza espazio bat elkarbanatzeaz harago doala nabarmendu zuen, “elkarreko errespetua eta enpatia” dela herrikide izatea.

## Sareren mosaikoa, Covid-19agatik egokitua

**Urriak 24, larunbata**

■ Sarek larunbaterako Donostian deitutako manifestazioa eta mosaiko erraldoia egokitu ditu. Kanpo ekitaldiarako ezarri diren arauak errespetatuz, Euskal Herriko txoko ezberdinetako Sare taldeetako 600 ordezkari osaturiko mosaiko sinbolikoa osatuko dute Kontxan. Mobilizazioa sare sozialen bidez jarraitzea deitu du Sarek.

**Urriak 30, ostirala**

■ 20:00 Elkarretaratzea Mikel Laboa plazan.

**Otar-Goxo**  
Elkargaiak  
Zubiaurrena, nº2  
☎ 943 36 55 81  
20170 Usurbil

**JUANTXO**  
BURDINDEGIA  
Zubiaurrena 8  
☎ 943 370 008

Zuen  
publizitatea  
hemen  
☎ 943 360 321  
publizitatea@noaua.eus

**EROSKI/city**  
kale Nagusia 10, USURBIL  
943 361182

# “Gerra galdu zutenen memoria berreskuratzera goaz”

1936ko gerrak urte hartako irailean Usurbilen utzitako arrastoa azalerratu eta ahazturiko memoria eraikitzen datoz, jazotakoa betirako ahanzturan eror ez dadin. Dagoeneko ikerketa faseari ekin diote, garai hartako usurbildarren objektu eta lekukotzak bildu nahi dituzte, auzolanean gudalekuak berreskuratu. 2021eko irailean tropa faxistak udalerrri honetan sartu zireneko 85 urte beteko direnerako borobildu nahi dute egitasmoa ordura arte bildutakoa jendaurrean erakutsiz, Aitzol Arroyo historialariak, Aitor Azurki kazetariak eta Ionma herritarrak 36ko gerrari buruzko ikerketa bat abiarazi dute.



Aitzol Arroyo historialariak, Aitor Azurki kazetariak eta Ionma herritarrak 36ko gerrari buruzko ikerketa bat abiarazi dute.

## AITZOL ARROYO

**“Orain arte gutxi aipatu izan den Usurbilgo fronteak bere garrantzia eta indarra izan zuen”**

### NOAUA! 1936ko irailaren 19an zer jazo zen Usurbilen?

**Aitzol Arroyo:** Tropa faxistak sartzen dira Usurbilen. Hala ere aurretik hemengo bataila odoltsu edo gordinenak iraila hasieran abiatzen dira, irailaren 5eko gauean, hilaren 6tik aurrera. 10 egun iraungo zuten borroka latzak egon ziren hemen inguruko mendietan. Ikerketa lana dezente aurreratu dugu. Baditugu, errefortzu gisa armamentu desberdina

hona, Usurbilgo frontera ekarri zutela dioten erregistroak. Nola ekarri zuten materiala bai Bilbotik, Bizkaiko Gobernu Zibiletik, zaurituen eta hildakoen erregistroak ditugu, badugu Usurbilgo frontearen hilda suertatu zen sarjentu baten kasua... Orain arte gutxi aipatu izan den Usurbilgo fronteak bere garrantzia eta indarra izan zuten.

**Aitor Azurki:** Usurbilgo fronteak bere indarra, garrantzia

izan zuen eta horren lekuko, nola Bizkaitik materiala ekarri zuten oso kontziente zirelako gune garrantzitsua zela. Usurbilgo herriarentzat sorpresa interesgarriak izango dira.

### Dokumentazio fasean zaude-tela esan liteke. Zuen egitasmoaren abiapuntua ezta?

**Aitzol Arroyo:** Lehen fase bezala hartu genuen ikerketa lana, artxibo ezberdinen hustutzea. Covid19-ak ikerketa nahiko moteldu eta zaildu du ere artxiboetako sarrerak eta dokumentuak begiratzea. Lehen azkarrago egingo zena orain pixka bat luzatuko da, baina momentuz ikerketa fase horretan gaude; dokumentuak,

iturri bibliografikoak aztertzen, fronteko lekuak edo toki belikoak ikertzen. Azkenean hori izango da guretzat oinarri nagusia aurrerago egingo dugun erakusketarako, baita ere kale-ratuko dugun azkeneko argitalpenerako edo forma emango diogun azken proiekturako.

**Aitor Azurki:** Orain arte Salamancako artxibo historikora joaten zinen eta kaxak banaka aztertzen joaten zinen. Kaxa bakoitzean karpeta ezberdinak topa daitezke. Lehen egun batean 30,40, 50 kaxa begira genitzakeen eta orain bat edo bi. Horrek ikerketa lana asko zailtzen digu. Baina egoera horrela dago momentuz, ea aldatzen den.

# “Parte-hartze prozesu bat hasiko dugu hurrengo urtean”

### NOAUA! Arreta deitu dizuen daturik, pasadizorik?

**Aitor Azurki:** Oso deigarria da lehen aipaturiko sarjentu hori frontearen nola hiltzen den.

**Aitzol Arroyo:** Abuztu bukaeran Gipuzkoako defentsa batzordeak dekretu edo agindu bat argitaratu zuen. Normalean lehen anbulantzia edo kamioien bidez herrira jaisten zituzten edo Donostiara eramaten zituzten,

baina iraila hasieratik frontearen hildakoak frontearen utzi edo bertan lurperatu behar zirela agindu zuten. Zentzu horretan, sarjentu honen kasua aipatu esan genezake, eta badakigu seguru ez dela bakarrik izango, zantzuak egon litezkeela oraindik ere mendian gorpuren bat topatzekoa. Hurrengo urte erdialdean, udaberrietik aurrera gudalekuen berreskurapenarekin hasiko gara eta hor ger-

ta liteke halako sorpresak topatzea, bai armamentu edo lubaki aldetik, horrelako kasuak ere gerta litezke.

### Prozesu honetan ere bidelagun izan nahi dituzue herritarrak. Zer modutan lagundu dezakete memoria osatze lanotan?

**Aitor Azurki:** Hurrengo urtean parte-hartze prozesu bat hasiko dugu eta zer eskatuko dugu? Alde batetik lekuko-

tzak, bakoitzak gogoratzen duena garrantzitsua izango da. Herritarrak has daitezela etxeko adinekoei galdetzen, armairu eta ganbaretako kaxetan izan dezaketen material hori begiratzen.

Fase hau oso garrantzitsua, funtsezkoa iruditzen zaigu, hor berreskuratzen delako alde batetik artxiboetan ikerituko duguna, beste horrek osatuko du Usurbilgo herriaren gizarte memoria.

# “Belaunaldi berriek aurrekoek zer pairatu zuten ezagutzen lagundu dezake”

**NOAUA! Erlojuz kontrako lana da hau guztia?**

**Aitor Azurki:** Erlojuz kontrako lana da, adinekoak hiltzen ari dira. Eta hortaz ahalik eta lasterren hasi nahi dugu. Herritarrek has daitezela etxeko ganbaran dagoen kaxoi edo kutxa irekitzen. Edozein gauza txiki iruditzen zaiena guretzat oso objektu preziatua izan daiteke, azkenean hori delako ere herri baten memoria gorpuzte.

**Hamarkada luzeetan etxe askotan isilarazia izan den gaia azaleratzen lagundu dezake.**

**Aitor Azurki:** Proiektu honek belaunaldi berriek aurrekoek zer pairatu zuten ezagutzen lagundu dezake, bere memoria. Norberak ere oso altxor politak topatuko ditu. Gertatu izan zaigu jende anonimoak idatzi izana, “nire familiaren historiaren parte bat eman didazue, berreskuratzen lagunarazi didazue” esanez. Halakoak gertatuko dira seguru eta hori ere oso polita da, kanpora zein barrura begira.

**Zein da egitasmo honekin Usurbilen utzi nahi zenuketen arrastoa?**

**Aitzol Arroyo:** Lehenengo unetik, proiektuaren lehenengo ideiak burura etorri eta egitasmoa alkateari eta zinegotzietz aurkeztu genienean, adierazten genuen oraindik bazegoela zerbait Usurbilgo herrian ahanzturaren kutxa batean galdua. Eta zerbait zor geniola ere hemengo herriari, gizarteari, oroimena sustatuz, ahanzturan ez geratzeko prozesu guztia. Oraindik ere ehunka eta ehunka dira ahanzturan daudenak. Zentzu horretan gure aletxoa jarri nahiko genioke 36ko gerran Usurbilen gertatu zenari, herriak merezi duelako. Berreskurapen lan horrek ere balioa du baita herria osatzeko, herrigintza egiteko, ba-



“Gure aletxoa jarri nahiko genioke 36ko gerran Usurbilen gertatu zenari, herriak merezi duelako”.

## AITOR AZURKI

**“Ez gara zerotik hasiko. Aurrez eginiko lan historikoa osatzera, sakontzera gatoz”**

lio diezaiokie gizarteari.

**Aitor Azurki:** Gu ez gara zerotik hasiko, aurrez eginiko lan historikoa osatzera, sakontzera dator. Egin izan da omenaldirik aurrez Usurbilen; zenbait gudariri eginiko omenaldian emandako plakak jartzen zuen moduan, “izan zirelako gara eta garelako izango dira”.

**Iragana argitu, etorkizunean berriz halakorik ez errepikatze.**

**Aitzol Arroyo:** Batez ere hori da. Edonork aukera izatea jakiteko benetan zer jazo zen duela 84 urte. Batez ere lanke-ta garrantzitsua dago gazteenekin, eskoletan. Gerrataz galdetzen badiezu, ez dakite ezer. Nik behintzat ezjakintasuna da sentitzen dudana orohar. Nahiko gogorra egiten zait historialari bezala, horren gertu dugun gaia dela ikusirik. Beti aipatzen dugu 2. Mundu Gerran Auschwitz eta abar ikur

bihurtu zirela, baina oraindik ere ahanzturan ari gara uzten, duela 84 urte gure aitona-amonek pairatu zutena; erbestera joatea, kartzela, heriotz zigorrak, errepresioa... Hori guztia hemen ere gertatu zela eta oraindik ere orduko aztarnak badira. Beraz bisiten eta hitzaldi ezberdinen bitartez gaia gazteen-gana hurbiltzeko asmoa dugu, beraiek ere gizartearen iragan kolektiboa zailtasunik gabe ezagutu ahal izateko.

**85. urtemuga bidean da.**

**Aitzol Arroyo:** Proiektua aurkeztu genuenean, efemeride gisa hartu genuen 2021eko irailaren 19a, justu hurrengo urtean beteko baitira 85 urte faxistek Usurbil okupatu zutenetik. Nahita jarri genuen erakusketa urte horretan egitea, inaugurazio ofizial bat egiteko egunean bertan. Omenaldi moduko bat izateko ere, zentzu batean buelta emateko. Nola duela 85 urte faxistek Usurbil hartu zuten eta nola 85 urteren ondoren gerra galdu zutenen memoria berreskuratzea goazen. Duela 85 urteko gizarte merezi duen toki duin batean kokatzeko.

## 36ko gerraren memoriaren berreskuratzea, fasez fase

- 1.- Ikerketa lana (egungo fasea): Informazio bilketa.
- 2.- Parte-hartze prozesua (2021eko udaberrik aurrera): Memoriaren bulegoaren irekiera, dokumentu, argazki eta lekukotzak biltzeko. Gudalekuak berreskuratzea: “Usurbilgo Frontea” gunea txukundu eta ezagutaraztea.
- 3.- Memoriaren bulegoan bildutako materialaren erakusketa. Inaugurazioaren balizko data: 2021eko irailaren 19a, tropa faxistak Usurbilen sartu zireneko 85. urteurrenean.
- 4.- Bildutako informazio guztiarekin liburu, dokumental edo webgune bat plazaratzea.

Sustatzaileak: Aitzol Arroyo historialaria, Aitor Azurki kazetaria, Ionma herritarra, Usurbilgo Udalarekin batera.

# Kartzela eta emakumea, begirada feministatik

1936ko gerraz ari garela, garai hartaz idatzi duen herritarrik bada Usurbilen. Irakurri bestela iaz UEU-k plazaraturiko “Argi-izpiak txarrantxen artean. 14 begirada kartzela feminismotik birpentsatzeko” argitalpena. Hainbat egileek emakume espeteratuengan espetze-sistemak eragindakoari buruz bideraturiko lanketak, begirada feministatik.

Egile talde batek parte hartu du egitasmoan; tartean bi herritarrek, Garazi Lizaso Manterolak eta Oidui Usabiaga Arruabarrenak. Lizaso arkitekto tekniko izanik, master bat egin zuen, “eraikitako ondarearen zaharberritzea, eraberritzea eta birgaitzearen inguruan”. Amaierako lana da, argitalpen honetan jasoa dagoena. Feminismoarekin lotura zuzena izango zuen gaia jorratu nahi zuen, lurraldetasuna, ondarea eta espetzea hizpide



“Argi-izpiak txarrantxen artean” argitalpenean hartu dute parte Oidui Usabiagak eta Garazi Lizasok. Argazkia iazko abenduan egina dago.

## EMAKUMEAK ESPETXEAN

**Ikusezintasun bikoitza pairatu zuten. “Gerra galdu zuten eta gainera emakumeak ziren”**

izango zituena. “Saturrarango kartzelan topatu nuen zeharlerro horien guztien elkargunea”.

1937. urte amaieratik 6 urtez zabalik izan eta 4.000 gaitibu izan zituen Saturrarango espetzeaz ikertu zuen. Egun

haren arrastorik ez da, baina emakume presoek bizitako bigegabekeriaz idatzi du, haien oroimena ahanzturan gera ez zedin. Hortik bere lana laburbiltzen duen izenburua; “birrindutakoa berpizten; ahaztutako arkitektura eta emakumeak”. Ikusezintasun historikoa nabarmendu nahi zuen. Ikusezintasun bikoitza, “gerra galdu zutenak eta gainera emakumeak ziren”. Altxamendu frankistak aldarazitako

testuinguruan emakumeek bizi zuten errealitatea aztertuta; espetze zigor hirukoitza. “Zigor penala, soziala eta auto zigorra”.

Baldintza ezin negargarriagoetan bizi ziren. 165 pertsona gela berean, higiene eza, bakoitzak 45 zentimetro eskas lotarako, eginbeharrak denen aurrean egin behar... Espetxearen historia arkitektonikoaren erreposoa egiten du bere lanak; errotak hasieran, gero bainuetxea, seminarioa, kuartela gerra garaian, espetzea segidan. “Ederki aprobetxatu dituzte arkitektura horien ezaugarriak eta nolakotasunak erabilera ahalik eta ankerrena emateko”, Lizasoren esanetan.

Orduko espetze sistema egungoarekin alderatuta, “ikusten duzu ez dela aldatu sistema. Eredu hark bere horretan darrai. Birgaitzeaz hitz egiten da une oro baina inolako uneetan helburu horri ez dio erantzuten”.

## “Gizarteko bazterkeria guztiak espetxean muturrekoak bihurtzen dira”

Egitasmo honetan parte hartu duen beste usurbildar bat ere bada; Oidui Usabiaga Arruabarrena. Beste ertz batetik heldu zion gaiari. 16 preso emakumeetan oinarrituriko fikzioa eraiki zuen bere lan taldeak. “Viki” izeneko asmatutako emakume baten egun bateko kartzela eguna kontatzen dute. “Gu jarduera fisikoa eta kirolaren alorrekoak gara”. Eremu honek espetze barruan, presoarentzat “beste kideekiko erlazioan” zer eragin duen ikertu dute.

Adibide argi bat honakoa, kirol hezkuntza mundutik, Oidui nabarmen bezala, “gai sozial asko jorratzen” dituzte- la agerian uzten duena. Kasu

honetan, espetxean jarduera fisikoak duen garrantzia. Estrategia moduan esaterako; presoak eta kartzela barruko giroa “lasai” mantentzeko. “Esana- hiak oso desberdinak izan daitezke. Batzuek erresistentzia bide bezala hartzen dute kirola egitea”. Ia dena kentzen dien espetzeak “askegune” gisa har dezakete kirola, “bere identitate pertsonala edo kolektiboa sortzea” ahalbidetzeraino.

Ikerlanean zehar jabetu zirenez, “estrategia oso nabarmenak ari gara aurkitzen, oso erabilgarriak izan daitezke pertsona horientzat. Instituzioak nahi badu gauza horiei hel dakieke, benetako gizarteratze bati begira”. Baliagarria

baita, Oiduiaren lan eremuan dihardutenentzat. “Guretzat, zaurgarriak izan eta egoera benetan latzean dauden hain estigmatizatutako pertsona hauekin nola lan egin ikusteko modu bat da”.

Hemen hausnarketarako Usabiagak planteatzen duen galdera; “benetan birgizarteratu nahi ditugu pertsona horiek eta horretarako da kartzela bat?”. Bere esanetan, “gizarteko bazterkeria guztiak espetxean muturrekoak bihurtzen dira”. Espeteraturiko emakumeen lekukotzetan jaso ahal izan dutenez, gimnasioa ezin erabili gizonezkoak bazeuden edo “emakume batek baloia eskatu eta esan diote josteko

makina baduzu, zertarako nahi duzu baloi bat?”.

### Aberasgarria

Bi usurbildarrentzat egitasmo honetan parte hartzea zinez aberatsa izan da. Oidui dioenez, “ikaragarri ikasi dut”. Landutakoak Garaziri irakatsi dio, “edozein diziplinak begirada orokorrago bat izan dezakeela”. Oidui dioenez, “begirada zabaldu eta deserosotasun puntu batean bizitzea”. Garaziren esanetan, “horrek kuestionatzera zaramatza nola lor dezakegun jendarte parekideago, justuago, duintago eta denontzako bizigarriago bat”.



# Murrizketa berriak iragarri dituzte

Iragan aste osoan 12 kasu atzeman zituen Osasun Sailak Usurbilen. Urriaren 18ra arte 101 kasu, eta hildako bat, 237,42ko 100.000 biztanleko metatutako inzidentzita tasa zen egun horretan.

Metatutako intzidentzia tasa 100.000 biztanleko 323,81ekoa, kutsakortasun indizea batetik gorakoa (1.27) eta egun 620tik Covid-19 dutenentzako ZIU-ko 50 ohe okupatuak ditu EAE-k. Irizpideotan oinarrituta, Eusko Jaurlaritzaren arabera "Biziberrri II Planean aurreikusitako laugarren agertokian" daude Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako udalerrriak, baita honenbestez Usurbil ere. Herritarren segurtasuna bermatu eta korona-



Ostalaritzako establezimenduak 00:00etan itxi beharko dira. Txoko eta elkarte gastronomikoetako jarduera aldiz, debekatua.

birusaren hedapenari eusteko pertsonen mugikortasuna mugatuko duten neurri berriak iragarri ditu Eusko Jaurlaritzak. Egunotan jarri asmo dituzte martxan, Euskadiko Auzitegi Nagusiak erabakiok berretsi eta osasun sailburuak

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ostean.

## Neurri nagusiak

- Talde bilerak 10etik 6 pertsonara murriztuko dira.
- Aforoak % 50era murriztuko dira jarduera-eremu guz-

tietan.

- 400 pertsonako muga jende asko bilkuretan eremu itxietan eta 600ekoa irekietan.
- Ostalaritzako establezimenduak 00:00etan itxi beharko dira. Txoko eta elkarte gastronomikoetako jarduera debekatua.
- Parkeak eta lorategiak eta haurrentzako jolas-parkeak 23:00etatik aurrera ezingo dira erabili.
- Bertan behera geratuko dira kirol-lehiaketa ez-federatuak.
- Kasu positiboen isolamendu aldia (3 egun sintomarik gabe egon badira) eta kontaktuen berrogeialdia 10 egunekoa.
- Zaintza eta kontaktuen miaketa lanetarako 45 pertsonen kontratazioa.

Azaroak 1, igandea

# LUR ETA AMETS FILMA

Ordua: 17:00.  
Non: Sutegiko auditorioan

Sarrerak: 3€ Lizardi eta Noauan aldez aurretik

**noqua**

## “Belarriprest edo Ahobizi izan gaitezen animatu nahi dugu Korrikazale oro”

**D**atorrena, bi urtean behin gertatu ohi den moduan, Korrika urtea behar zuen arren, oraingoan ez da hala izango. Covid-19aren eraginez, urtebetez, 2022ra atzeratzea erabaki dute antolatzaileek euskararen aldeko lasterketaren 22. edizioa. “Denbora gehiago hartu nahi dugu, normalitate berria nondik nora joango den ikusteko, etorkizuna hobeki ezagutzeko, eta, ondo bidean, egoera hobetzen bada, denok desiratzen dugun Korrikara iritsiko gara, 2022. urteko udaberrian”. Orduan, “herriz herri igaroko gara”, kaleetan eta herrietan elkartuko gara berriro” iragarri dute.

AEK-k hartutakoa “erabaki latza” dela nabarmentzen dute, “kolpe ekonomiko handia pairatuko dugu”. Egoera honen aurrean “azpimarratu nahi dugu ezinbestekoa dela helduen euskalduntzea biz-



Covid-19aren eraginez, Korrikaren aurtengo edizioa 2022ra atzeratzea erabaki dute antolatzaileek. Argazkia duela bi urtekoa da.

### KORRIKAREN 22. EDIZIOA

**Dena ondo bidean,  
2022ko udaberrian  
gingo da Korrikaren  
edizio berria**

kortzea eta inbertsioak areagotzea, Euskal Herri osoak behar-beharrezkoa du-eta”.

Bitartean, AEK-k lanean jarraitzeko asmoa du “euskalte-

gietara hurbiltzen ari zaizkigun milaka lagunek eskolak modurik eragingarrienean ikas ditzaten”. Eragileekin elkarlanean ere segiko du, “2021 urtean oinarri sendagoak jar ditzagun herri honen euskalduntze bidean”. Lehenago, euskaltegietan urte amaierako iragarria dagoen Euskaraldiarekin bat egin du. “Belarriprest edo Ahobizi izan gaitezen animatu nahi dugu Korrikazale oro”.

## Zaldi urdina antzezlanarekin txiki geratu zen Sutegi

**J**exux Artze Kultur Elkar-teak maiatzean antolatu ohi du bere kultur zikloa, baina pandemia dela medio, bertan behera utzi behar izan zuten. Horren ordez, *Zaldi urdina* antzezlanaren ekarri zuten aurreko larunbatean Sutegira.

Egungo egoeraren ondorioz, edukiera 80 pertsonara murriztu dute Sutegin, distantzia eta espazio itxien edukieren neurriak betetzeko. Erabat bete zen auditorioa. 80 sarrerak saldu zituzten, eta inor gehiago sartzeko ez zela eman zioten hasiera antzezlanari.



Sal zitezkeen sarrera denak saldu ziren larunbatean. NOAUA!ko bazkideen artean bi sarrera zozketatu genituen eta Ricardo Izeta izan zen saritua.

## Gozogintza tailerra antolatu dute Santuenean

Gozogintzari lotutako tailer txiki bat antolatu dute Santuenean.

■ Bi tailerrak Santueneko elkartearen egiteko dira, plaza ondoko egoitzan.

■ Egunak: azaroaren 13a eta 20a, ostiralak biak.

■ Orduetgia: arratsaldeko 18:00etatik aurrera.

■ Izen ematea: azaroaren 6a bitartean egongo da zabalik. Telefonoz egin daitezke izen-ematea: 619 791 170 / 670 027 731.



Bi saiko tailerra izango da. Azaroaren 13an eta 20an batuko dira Santueneko elkarteak.

## Kea dario, aspaldi ez bezala

Aspaldi ez bezala, kea darioa ikusi ahal izan da Usurbildik Zubietako erraustegia. Eguraldi kaxkarra egin zuen iragan asteko egunetako batean ateratako argazkia da ondokoa, kea zutabeak goiz lainotuarekin bat egitera heldu zenekoa. Begi bistakoa zen erraustegia isurtzen ari zen kea udalerriko txoko ezberdinetatik. Erraustegia parez pare, etxeko leihotik ikusi dezakeen Kalezarko bizilagunak aipatu digu aspaldi ez zuela modu horretan ikusi erraustegia. Iragan astean izan zen.



Erraustegia, iragan astean.

# Atzegi elkarteak: “Bidelagun askorekin batera lortu dugu gizartea aldatzea”

**A**tzegik (adimen desgaitasuna duten pertsonen aldeko elkarteak) sentsibilizazio-kanpaina berri bat jarri du martxan. 60. urteurrenarekin bat eginez, astero protagonista bat aurkeztuko dute euren web orrialdean. Eta ospakizunei amaiera emateko, ekitaldi bat iragarri dute Kursalalen.

Atzegi elkarteak dioen bezala, “gauzak asko aldatu dira 1960an familia batzuk seme-alaben etorkizunaren alde borrokatzeko elkartu zirenetik”. Orduan pentsaezinak ziren helburuak lortu direla diote Atzegiko kideek: “hezkuntzan, egoitzetan, lanean, aisian eta oro har, eskubideen arloan”. Hezkuntzarako eskubidea dutelako orain, eta baita lanerako, botoa emateko edota modu independentean bizitzeko eskubidea ere.

## “Bidelagunekin lortu dugu gizartea aldatzea”

Atzegi 60 urte bidelagunak biltzen lelopean aurkeztu dute sentsibilizazio kanpaina berria. “Bidelagun horiekin lortu dugu gizartea aldatzea, begirada aldatzea, aukerak areagotzea eta, azken batean, eskubide asko onartzea”, diote Atzegiko kideek. “Bai-



Hernanin aurkeztu zuten eskualde mailako kanpaina. Argazkia: Aiurri.

### ATZEGI

**60. urteurrenarekin bat eginez, astero protagonista bat aurkeztuko dute atzegi.eus/bidelagunak web orrialdean**

na gogoan izan behar dugu oraindik beste erronka asko geratzen direla aurretik eta Gipuzkoako gizartearen babesak ezinbestekoa izaten jarraitzen duela”.

### Astero protagonista bat

Urteurrenarekin bat eginez, astero protagonista bat aurkeztuko dute [www.atzegi.eus/bidelagunak](http://www.atzegi.eus/bidelagunak) web orrialdean. Adimen desgaitasuna duten pertsonak, senideak, boluntarioak edo bestelako bidelagu-

nak... “Bere esperientzia pertsonala azaltzeko”.

Urteurrenaren amaieran, 2021eko abenduaren 20an, Donostiako Kursalalen ekitaldi bat egingo dutela iragarri dute. “Ekitaldiak etorkizunari bide ematea izango du helburu”.

### Atzegi, datutan

- 2.054 familia (2.140 adimen desgaitasuna duten pertsonak).
- 2.534 kolaboratzaile.
- 10.486 atzegizale.

### Elkartearen oinarria, guztira:

15.074 pertsona.

### Buruntzaldeko datuak:

- 158 familia.
- 101 kolaboratzaile.
- 540 atzegizale.

## Errigorako saskiak eskatzeko epea zabaltzear da

Udazkenarekin batera bueltan dator Errigoraren “Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka” elkartean kanpaina. Ohi bezala, eskabideak NOAUA! Kultur Elkartetik bideratu ahalko dituzue, oraingoan urriaren 24tik azaroaren 12ra.

### Hiru saski aukeran

“Auzolanari esker, bertako eus-

kalgintzari ekarpen-ekonomiko garrantzitsua egiten diogu (saski bakoitzaren balioaren %25). 2013an kanpaina lehenengoz egin zenetik eskaintzan hainbat aldaketa egin dugu. Egun, hiru saski ematen dira aukeran”, Errigora ekimenaren sustatzaileen esanetan; beltza (betikoa), berdea (ekologikoa) eta zuria (berezia). Informazio



Hiru saski daude aukeran.

gehiago, datorren aldizkarian eta [errigora.eus](http://errigora.eus) atarian jaso dezakezue.

## Gure Eskuk nazio ekitaldi bat egingo du urriaren 31n

Erreferendumaren aldeko sinadura bilketa masiboa abiatu du Gure Eskuk [hamaikagara.eus](http://hamaikagara.eus) atariaren bidez. Bertan eman dezakezue atxikimendua. “Erreferendum bidez erabakitzearen aldeko atxikimendu eta konpromiso pilaketa masiboa da ‘Hamai-ka Gara’ egitasmoa. Erabakitze-eko eskubidea gauzatzearen aldeko jarrera nagusia ikustaraztea du helburu, eta Euskal Herriko lurraldeetan urrats eraginkorrak egitea”.

### Proiektio bidez eskainiko da

Testuinguru honetan, nazio mailako ekitaldi politiko eta kulturala deitu du Gure Eskuk urriaren 31n. Egun bizi dugun ezohiko egoera tarteko, Euskal Herri osorako proiektatuko dute hamaikagara.eus atarian, eta ekitaldia zuzenean ikusteko herriz herri ere proiektzioak antolatu ditu erabakitze eskubidearen aldeko herri mugimenduak. “Usurbilgo Gure Esku-k ere zuzeneko proiektzioa antolatuko du, segurtasun neurriak fin hartuta, herrikideek elkarrekin saioaz gozatzeko aukera izan dezaten. Ekitaldi politikoaz gain, “Altxa!” ikuskizunaz gozatu ahal izango da zuzeneko proiektzio horretan”.

### Musikari, bertsolari eta antzezleen eskutik

Ikuskizun honetan hainbat kulturgilek hartuko dute parte: Erika Olaizola, Iraia Elias eta Laura Penagos aktoreek, Amets Arzallus bertsolariak, eta Eñaut Elorrieta eta Dupla taldeko musikariek. Aman-cay Gaztañaga da zuzendaria eta Gotzon Barandiaran gidoilaria. Hitzordua, urriaren 31n, 18:00ean, zehazteko dagoen lekuan.

## Ustezko iruzur batez ohartarazi du Añarbeko Urak mankomunitateak

Uraren zerbitzua kudeatzen duen mankomunitatearen esanetan, eskualdeko udalerrietan uraren kalitatea txarra dela argudiatuz etxeetara sartzen saiatzen ari dira.

Añarbeko Urak-ek aste honen hasieran jakinarazi zuen uraren kalitateari lotutako ustezko iruzur bat dagoela martxan. “Ustezko iruzur bat gertatzen ari da ura arazteko iragazkiak edo ekipoak etxez etxe saltzeari dagokionez, Mankomunitatearen eremuko udalerrietan uraren kalitatea txarra dela argudiatuz”. Erabiltzaileek telefono dei bat jasotzen dute uraren kalitatea aztertzeko hitzordua eskaintzen edo zuzenean etxebizitzara sartzen saiatzen dira, ohartarazi dutenez.

“Behin etxe barruan, us-



Erabiltzaileek telefono dei bat jasotzen dute uraren kalitatea aztertzeko hitzordua eskaintzen edo zuzenean etxebizitzara sartzen saiatzen dira.

### IRUZURGILEAK

**“Uraren kalitatea txarra dela argudiatuz etxeetara sartzen saiatzen ari dira”**

tezko teknikariak zenbait proba engainagarri eta tri-

kimailu kimiko egiten ditu, erabiltzailea konbentzitzeko iturriko ura edateagatik duen arriskuaz, eta, ondorioz, iragazteko ekipo batzuk instalatzeko beharraz. Ekipo horien instalazio eta mantentze-kostua milaka eurokoa izan daiteke”.

## Urbil AECC Gipuzkoaren “15 segundo” kanpaina ari da partehartzen

Urriaren 19a Bularreko Minbiziaren Kontrako Nazioarteko Eguna izan zen. Tumore ohikoenetako bat da emakumeen artean. Urbil “15 segundo” kanpaina ari da partehartzen, kontzientzia-zioa eta sentsibilizazioa sustatzeko asmoarekin.

Bere konpromisoaren erakusgarri, Urbilek arrosaz tindatu zituen zentroko pantaila digitalak, webgunea, sare sozialetako profilak... Eta gune berezi bat jarri zuen bezeroen arretarako gunean: puxikak, begizta, zapiak, maskarak, boligrafoak eta eskumuturreko solidarioak bezeroen esku.



Covid-19 birusaren aurkako hartutako neurriengatik, zigilu bat eskuratu du Urbilek. Argazkia: Urbil.

### ZIGILU BERRI BAT

**Urbilek “SGS Disinfection Monitored” zigilua lortu du Covid-19aren aurrean hartu dituen neurriengatik**

**Zigilu berri bat eskuratu du Urbilek**

Urbilek “SGS Disinfection

Monitored” zigilua lortu du Covid-19aren aurrean hartu dituen neurriengatik. Zigilua lortu duen Gipuzkoako lehen merkataritza-gunea izan dela adierazi dute Urbilgo arduradunek. “Zigilu horrek Covid-19a kudeatzeko gune baimendutzat aitortzen gaitu”.



### Bularreko minbiziaren aurkako ikurra, udaletxean eskegia

Aurreko astelehenean, Bularreko Minbiziaren Kontrako Nazioarteko Eguna gogoan, AECC Gipuzkoaren ikur bat eskegi zuen Udalak herriko etxe bakoian.

### “Guk Zubietan zer” parte-hartze prozesuaren hurrengo hitzorduak

Etorkizunean nola bizi, mugitu, harremandu... galderei erantzuten ahaleginduko dira, Usurbilgo Udalak Donostiakoarekin, Zubietako Herri Batzarrarekin eta EHU-rekin elkarlanean datozen asteotarako iragarri dituzten parte-hartze saioetan.

### Ingurumena / mugikortasuna

- Urriak 20: mahai ingurua.
- Urriak 22: lan saioa.

### Gizartea / ekonomia

- Azaroak 3: mahai ingurua.
- Azaroak 5: lan saioa.

### Hirigintza / etxebizitza

- Azaroak 17: mahai ingurua.
- Azaroak 19: lan saioa.

### Saioen ordutegia eta lekua:

- 18:30-20:00, Zubietako frontoia.
- Aurrez izen eman emailaz: [hirigintza@usurbil.eus](mailto:hirigintza@usurbil.eus)
- Sustatzaileak: Usurbil eta Donostiako Udalak, Zubietako Herri Batzarra, EHU.

## “Hemen bonua gutxi batzuentzat izan da erabilgarria”

**NOAUA! Zer nolako harrera izan du Gertuago kanpainak zuenean?**

**Kamden Akademia:** Harrera ona izan du, baina kontua da gure kasuan bost edo sei ikasleren artean erosi dituztela bonu guztiak. Orduan, ikasleentzat ona izan da, baina oso gutxi aprobetxatu duten laguntza izan da. Batek 18 bat bonu erosi ditu, beste batek 10 uste dut. Orduan, gutxi batzuentzat izan da erabilgarria.

**Nola ari zarete funtzionatzen pandemia garai hauetan?**

Bost talde ditugu momentu honetan, eta bi modu semipresentzialean egiten ari dira. Gelak txikiak dira eta ikasle kopuru oso murriztuak jarri behar izan ditugu, eta zentzu horretan kurtso hasiera hau



“Kurtso hasiera hau ez da errazegia izan taldeak egiteko garaian”.  
Argazkia: Ion Markel, Gertuago kanpaina.

### KAMDEN AKADEMIA

**“Bost talde ditugu une honetan, eta bi modu semipresentzialean ari dira”**

ez da errazegia izan taldeak

egiterakoan. Kontua da bonu sistema honekin arazoak izan ditugula parte hartu duten ikasle batzuekin, behin bonuak erositara konturatu baitira klase orduekin arazoak dituztela, eta beraz, gehiegi erosi dituztela edo jada ez dituz-

tela behar. Orduan hilabete batzuetarako bonuak hartuta zituzten eta dirua itzultzea tokatu zaigu, horrek dakarren lanarekin. Azkenean, bonuek aste edo hilabete batzuetarako diru kopurua berdintzen dute, eta ez dira klaseko erosten. Hori izan da arazoaren muina.

**Zein da Gertuago kanpainaren inguruan egiten duzun balorazioa?**

Idea ona dela uste dut, batez ere dendak dituzten horientzat. Gure kasuan, planteamentua desberdina da eta arazotxo horiek izan ditugu, orduan tira, bi aldeak ikusten dizkiot nik. Erosketa puntualerako egoki ikusten dut, baina akademia bat izanda ez da horren erraza funtzionamendua.

## “Aurten ikasle pilaketa askoz ere nabariagoa izan da”

**NOAUA! Konfinamenduak azterketa teoriko eta praktikoak zapuztu zituen. Ikasle askorentzat egoera zaila izango zen, ezta?**

**Solozabal Autoeskola:** Hiru hilabete geldirik egonda azterketa praktikoa egitea ez da erraza. Jende askok egunero hartzen du autoa lanera joateko edo dena delakoa, baina hilabete batzuk geldirik egoteak ez zu eragin berezirik izaten haiengan. Ikasten ari den norbaitentzat oso gogorra da, segituan galtzen baita praktika. Askok gero azterketara joan ziren, besterik ez bada ere probatzera, baina egoera ez zen batere samurra izan.

**Oraindik ere azterketarako izena eman nahi eta ezinean ari den jendea badaukazue, atzerapen horren ondorioz zain jarraitu behar duena?**



“Trafiko Zuzendaritzan ez digute batere konponbiderik eman”.

### SOLOZABAL AUTOESKOLA

**“Gu oso gustura gaude Gertuago kanpainak eskaini digun aukerarekin, nahiz eta jada agortu zaizkigun bonuak”**

Tamalez bai. Guk azterketa

bakoitzera ikasle kopuru txiki bat baino ezin dugu eraman, eta ikasle asko prestatzen badira ere data jakin baterako, askotan ez dago lekurik denentzat. Urtero uztailean jendea presaka aritzen da gidabaimena ateratzeko ahaleginetan abuztuan ez delako

azterketarik izaten, eta hori ateratzea lortzen ez dutenak eta uda ostean lanerako edo klasera joateko gidabaimena behar dutenak irailean pilatu egiten dira urtero.

Bada aurten pilaketa askoz ere nabariagoa izan da hilabeteetan ez delako azterketarik izan.

**Trafiko Zuzendaritzatik ez digute laguntza eta irtenbiderik eman egoera errazteko?**

Ez digute batere konponbiderik eman. Haiek kopuruak ongi finkatuta dituzte, eta ikasleak pilatzen badira arazoa gurea da.

Trafiko Zuzendaritzako egoitzaren aurrean manifestazioa ere egin genuen “Gure azterketa noiz?” lelopean, pankarta mordo batekin, baina ez digute erantzunik eman.

# Laburbira igande honetan iritsiko da Sutegira

**B**ederatzi film labur izango dira aurtengo Laburbirako protagonistak, guztiak 2018tik 2019ra bitartean egindakoak. Gehienak sortzaile gazteek eginak, baina esperientzia luzeko zuzendarien lanak ere badira.

Film denak uztartuta, “ordu bete luzeko koktela osatu dugu; kalitatezkoa eta dibertigarria, euskarazko film laburren zaleei merezi duten gozatu emateko”, Euskaltzaleen Topagunetik aditzera eman dutenez. Laburbira herriz-herriz ibiliko da hilabetez, “euskarazko zinegintzaren dosi txiki eta freskoak zabalduz”. Usurbilen igande honetan izango ditugu ikusgai, 18:00etatik aurrera Sutegin. Sarrera doan da baina aldeztatik eskuratu behar da usurbilkultura.eus atarian.



“Urak dakarrena” film laburreko irudia. Igande honetan beste zortzi filmekin batera eskainiko da Sutegin.

## LABURBIRA

**“Igande honetan bederatzi film labur izango ditugu ikusgai, 18:00etatik aurrera Sutegin”**

### Amaia San Sebastianekin solasaldia

Filmotako baten zuzendaria ere, Amaia San Sebastian gure artera etorri eta berarekin solasteko aukera izango dugu.

Guztia doan. Bizi dugun

osasun krisialdia tarteko ordea, aurrez eman beharko da izena usurbilkultura.eus atarian, urriaren 22a baino lehen. Ohi bezala, aforo mugak tarteko, 94 pertsonentzako lekua izango da kultur etxeko auditorioan.

## Bederatzi film labur ikusteko aukera paregabea

### Gau beltza

■ Egilea: Euskaltzaleen Topagunea. Jaiak euskaratik eta euskaraz antolatu eta bizitzearen garrantziaz jabetuta, berrasmatzeko bidea abiatu duen jai baten zabalpenean murgildu da Euskaltzaleen Topagunea. Dokumental honek egindako ibilbidea jaso, eta datorrenari bidea zabaltzen dio.

### Urak dakarrena

■ Egilea: Marilyn Taldea. Hondartzarako bidean zihozen neska bik zorro bat aurkitzen dute lurrean. Zeinena ote da? Ze misterio gordezten du zorro horrek?

### Anti

■ Egilea: Josu Martinez. 1920ko negua da Bizkarsoro herrian. Gerla Handiaren biha-

ramunean, haurrei irakurtzen eta idazten irakasteko aitzakia-ekin, eskola publikoak euskaraz mintzatzea debekatzen die, zigor eta umilazioen bidez.

### Tigre bat

■ Egilea: Amaia San Sebastian. Emakume baten gorputza, emakume berarena, erakusleku bihurtzen da guretzako. Emakumeak zer jantzi, zer estali eta zer ez erabakitzean, guk berari etiketak jartzeko, gure aurreiritziak eta beldurrak beregan botatzeko.

### Pil-pil

■ Egilea: Kristina Zorita. Gau bat. Biribilgune bat. Polizia auto baten keinukariak. Afari luze baten ondoren, bi neska gazte alkoholemia kontrol batean gelditzen dituzte. Horietako bat polizia batekin

lehia dialektiko batean hasten da nork egin bakailao onena. Indarrak neurtu ez, eta neskek poliziaetxean bukatzen du zerraturata. Euforia jaitzita, atxilotuak sinesgaitz helden dio gau surrealistari.

### Mamarro

■ Egilea: Ibon Iza Totorika. Umeek eta mozkorrek ez dute gezurrik esaten, hori dio esatera zaharrak, hala ere, batzuetan jolasak joko bihurtzen dira.

### Kateak

■ Egilea: Yolanda Mazkieran. Paleolitikotik gaur egun arte Euskal Mitologiaren Andereak jasan dituen eraso handien kontakizun laburra da “Kateak”.

### Jauzi bat eta prixt

■ Egilea: Maitane Eyheramonho. Irudi eta dantzaren bidez, film

labur experimental honetan, ondare, kultura, feminismo eta familiaren kontuak islatzen ditu Maitane Eyheramonho zinemagileak.

### Harria herria

■ Egilea: Dimegaz Kultur Elkarteak. Dantza bertikalaren estetika eta ikusgarritasuna, gizakiak suntsitutako espazio natural batera ekarria: harrobiko horma lakarrak leunduz, dantzaren edertasuna. Emakumea protagonista bertan: soketatik zintzilik, eskalatze grina antzetzuz, dantzaren espresio libererako. Proiektuan bost dantzari bertikalak, eskalatzailer batek, Oreka TX taldeak, Miren Narbaiza kantariak eta Karmele Gisasola Euskal Herriko harri-jasotzaile txapel-dunak parte hartu dute.

# Eskualdean barrena, tipi-tapa

**B**uruntzaldeko Ibilbideen 13. Eguna ospatuko da igande honetan. “Ohi bezala, bost ibilbide izango dira aukeran, zailtasun eta distantzia desberdinekoak, herriotan jarritako panelei jarraituz egin daitezkeenak”, antolatzaileek aditzera eman dutenez. Lehiatzeko ez den eta edozein pertsonarentzat egokia den jarduera egiteko eta Buruntzaldeko landa-ingurune naturala ezagutzeko aukera izango dute parte-hartzaileek.

Covid-19a dela tarteko, moldaketa batzuk egin behar izan dituzte. “Batetik, aurten ez da kontrol eta anoa punturik jarriko, eta ez da autobus zerbitzurik izango”, argitu dute antolatzaileek. Parte-hartzea egiaztatzeko webgune bat prestatu dute, eta hilaren 25ean egun osoan izango dute bertan erregistratzeko aukera.

## Sariak

Ohi bezala, parte-hartzea sari-tuko dute: ibilaldiaren osteko



Igande honean ospatuko da Buruntzaldeko Ibilbideen 13. eguna. Argazkia: Usurbilgo Udala.

## BURUNTZALDEA

**“Eskualdeko landa-ingurune naturala ezagutzeko aukera paregabea dugu”**

egunetan opari bana emango zaie norbere herriko kiroldegian.

### Aplikazio baten laguntza

Duela zenbait urtetik hona bezala, “smartphone-etarako Navi Ruta aplikazioa lagungarri izango dute parte-hartzaileek”. Buruntzaldeko edozein ibilbide

egiterakoan, informazioa eskainiko die (kokapena, jarraitu beharreko norabidea, interes-guneak...). Udalerri bakoitzeko panel informatiboetan dauden QR kodeak eskaneatu beharko dira horretarako.

### Buruntzaldeko Ibilbideen Eguna

Urriak 25 igandea, 08:00-14:00. Antolatzaileak: Lasarte-Oria, Urnieta, Andoain eta Usurbilgo kirol zerbitzuak. Laguntzaileak: Andatza, Euskalduna eta Ostadar elkarteak.

# Bost ibilbide aukeran

## Andoain-Urnieta

Koloreak, urdina eta berdea; 4,8 km. Oinez edo bizikletaz egin daiteke. Beharrezkoa da kirola egiteko oinetakoak erabiltzea.

## Andoain-Lasarte-Oria

Buruntza mendia zeharkatuz edo gailurra eginda. Koloreak: urdina eta urre zaharra; 7,9 km. Oinez soilik egin daiteke. Beharrezkoa da mendiko oine-

takoak erabiltzea.

## Andoain-Usurbil

Andatzatik barrena. Koloreak, urdina eta laranja; 14,9 km. Oinez soilik egin daiteke. Beharrezkoa da mendiko oinetakoak erabiltzea.

## Lasarte-Oria-Urnieta

Koloreak, urre zaharra eta berdea; 3,9 km. Oinez edo bizikle-

taz egin daiteke. Beharrezkoa da kirola egiteko oinetakoak erabiltzea.

## Lasarte-Oria-Usurbil-Aginaga

Koloreak, urre zaharra eta laranja; 9 km (Santuenetik barrena Aginagako Mapil ingururaino). Oinez edo bizikletaz egin daiteke, eta beharrezkoa da kirola egiteko oinetakoak erabiltzea.

## Futbola Haranen

Urriak 24, larunbata

■ 11:30 Kadeteak:

Usurbil FT A-Zumaiako

■ 15:30 Preferente mutilak:

Usurbil FT-Tolosa

## Urriak 25, igandea

■ 11:00 Kadete neska:

Usurbil FT-Martutene

Oharra: Harane itxita

egongo da zaletuentzat.

## Eskubaloia Oiardon

“Usurbil K.E.-ko partidak zuzenean ikusi ahal izateko, 1.000 jarraitzaile lortu behar ditugu kanalean”, sare sozia-len bidez zabaldu dutenez. Eskubaloi elkarteak Youtuben duen “Usurbil KE eskubaloia” kanaleko jarraitzaile bilakatzea eskatzen dute.

## Urriak 25, igandea

■ 10:45 Kadete mutilak,

preferente Euskal Liga:

Usurbil K.E.-Egia Indaux

## Sarrera bat egokitu dute kiroldegian

Kiroldegiaren atzeko aldeko sarrera egokitu dutela jakinarazi du Udalak, “Orbeldi dantza taldekoek, biodantzako ikasleek eta txirrindulariek sarrera propioa izan dezaten”. Datozen egunetan pasabide berri hori argiztatzeko argiteria ere jarriko dutela dio udalaren oharrak.



Orbeldik, Biodantzako ikasleek eta txirrindulariek sarrera propioa izango dute orain.



**txirriStra**  
TABERNA

-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

**Patxi**  
Patxienea  
Jatetxea

· bazkariak EGUNERO  
· afariak. ostegunetik larunbatara

© 943 362725 · © 688 690 361

## ETXEBIZITZA

## Salgai

Munalurra 16, 5ªA pisu bat salgai. 3 logela, 70 metro<sup>2</sup>. Ilogailua egitea onartuta dago eta berehala egingo da. 130.000 euro. [Interesatuak deitu: 617972350](mailto:Interesatuak.deitu:617972350).

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m<sup>2</sup> berritua, 2 gela, komuna, sukalde, jangela, egongela, harriera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m<sup>2</sup> garajea aukeran. 686462705

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukalde handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etxe eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m<sup>2</sup>. 3 logela, egongela, sukalde eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berrituta. 688 779 465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrek doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke:

943 360 321 / [erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus)

Oharrek bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

## Alokairuan

Usurbilen, kaxkoan eta inguruan pisu bat alokatu nahiko nuke. Txakurra daukat. Hilaren 1ean ordaintzeko konpromisoa. 661115222.

Etxe bat edo logela bat alokatu nahiko nuke Usurbil edo inguruan. Kontratua beharrezkoa. 633141060

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

## MOTORRA

## Salmenta,

## garajeak

Nissan Note 1600 gasolina kotxea daukat salgai, GRD matrikuladuna. 634416863

Volkswagen "escarabajo" bat saltzen dugu. Kotxe klasikoa baina oso egoera onean dago.

656704299.

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626 735 354

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxia. Prezioa negoziagarria. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatxiki kalean. Tel. 616 235 366.

## LANPOSTUAK

## Lan eskaintzak

Udan LH1eko (7 urte) ume bati klaseak emateko pertsona baten bila nabil Usurbilen. 626474232

Irailetik aurrera emakume bat behar dugu bi umei bazkaltzen eman eta eskolatik jasotzeko. Orduetgia zehazteko daukagu. 658706443

Game Masterra behar dugu

Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali [CV info@quantum.eus](mailto:CVinfo@quantum.eus) helbidera

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingeleseko klase partikularrak emateko. 608201745

Txiribogan asteburuetarako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainategi erretegian. 680 483 164

Zerbitzaria behar da Lasarteko taberna baterako. Interesatuak deitu telefono honetara: 607110365.

Finantza eta aseguruetakokudeatzailea behar da Buruntaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetan, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: profesio-naltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

## LANPOSTUAK

## Lan eskaerak

24 urteko neska gaztea. Arratsaldez umeak zaintzeko eskeintzen da. 695617001

Emakume usurbildarra naiz eta lan bila nabil, umeak zaintzeko edo

etxekolanak egiteko. 627184674.

Ingeleseko irakaslea naiz baina bestelako lanak egiteko ere prest dagoen emakumea naiz. Etxeko lanak, umeen zaintza edo helduen. 631746521.

Pertsona helduak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. Interesatuak deitu: 631 489 128.

Astelehenetik ostiralera orduka, pertsona helduak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 631157290.

Pertsona helduak zaintzeko gizona eskaintzen da. Lanaldi osorako edo orduka lan egiteko prest... Esperientzia eta erreferentziak ditut 603595656.

Udan umeen zaintzaile lanetan edo klase partikularrak emateko prest nago Usurbilen. 648059422

Saio partikularrak emateko eskaintzen naiz (edozein adinetako haurrei). Irakasle titulua dut eta iaz Ikastolan jardun nintzen klasea ematen. Ingelesez ere eman ditzaket saioak. 662127029.

Ekaina, uztaila eta abuztuaren hurren zaintzaile lanetan edo partikularreko irakasle gisa jardun nahi dut. Esperientzia zabala dut alor honetan. 688695958

Emakume bat etxeko lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko

# noaua.eus

## Herriko berriak beti soinean

Albisteak, argazkiak, bideoak, agenda, zorion-agurrak, eguraldia, aldizkaria online...  
Klik batean den-dena ikusgai zure eskuko telefonoan, tablet-ean edo ordenagailuan.

www.noaua.eus



prest.664192760 / 722 48 39 94.

Esperientzia eta erreferentziak ditut. Etxeko lanak, pertsona helduak zein umeak zainduko nituzke, orduka zein egun osoz. 602830982

Usurbilen lan bila nabil zaintza lanak edo etxeko lanak egiteko. Esperientzia handi eta erreferentzia onak. Orduka zein lanaldi osoan aritzeko disponibilitatea. 617857807

Garbiketa eta zaintza lanak egingo nituzke. Esperientziarekin. Orduka, edo lanaldi osoz aritzeko disponibilitatea. 603315126

Garbiketa lanak, edo zaintza lanak egingo nituzke. Disponibilitate osoa daukat eta esperientzia antzeko lanetan. 631818150

Pertsona helduak eta haurrek zaintzeko edo garbiketarako lan bila nabil. Denbora osoz edo orduka. 602424658

Eraikuntzan, jardineritzan edo bestelako ofizioetan lan egingo nuke. Bizargin moduan aritzeko ere bai. 602424658

Laguntza soziosanitarioa behar baduzu ez izan zalantzarik deitzeko. Esperientzia zabala zaintza alorrean. Kontxu 619827232

Orduka lan egingo nuke Usurbilen garbiketa lanetan zein zaintza lanetan. 689027247

Lanaldi osoz aritzeko lan bila nabil. Esperientzia asko 661091863

Adinekoak zaintzen zein gar-

biketa lanak egiten esperientziaduna. Disponibilitate osoa. Egoitza baimena ere badut. 645067560 Betza

Adinekoak zainduko nituzke. Esperientziaduna. Telefono zenbakia: 666097595.

#### BESTELAKOAK

Zaldi bat salgai. 2013koa. Nuri. Domatua. Burukoa, arnesa eta eserlekuarekin. Informazio gehiago: Amaia 943341900 eta Joxan 699870308.

Alabak giltza batzuk galdu ditu, astelehen ostegun bitartean, Torre Eiffel duela giltza kate gisa. Topatu badituzu, hona deitu: 617002046

Batxilergo 1. eta 2. mailako matematika klase partikularrak emateko norbaiten bila nabil. Klaseak gure etxean izatea nahiko genuke. 649482775

Frantseseko klaseak ematen ditut udan, norberaren etxean. 600766068 Jokin

Isabelita Mandarina Japoniarrak (txoriak) ditut salgai. 659185107

Ingelesarekin laguntzeko, Usurbilgo pertsona baten bila nabil, DBH 1ean ikasten ari den alabarentzat. 627184674.

#### TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, liburuak... Ataluko Garbigunean, doan hartu daitezke. Astelehene-tik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

## Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epategia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala .....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

#### Heriotzak

**Maria Pilar  
Gaztelumendi  
Garro**  
Urriaren 13an  
hil zen,  
95 urterekin



#### Heriotzak

**Joxe Elorza  
Landa**  
Urriaren 18an  
hil zen,  
81 urterekin



#### Heriotzak

**Emilia Benito  
Hernandez**  
Urriaren 19an  
hil zen,  
94 urterekin



## Goardiako farmaziak Urriak 22 - Azaroak 01

**Osteguna 22** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Ostirala 23** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Larunbata 24** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

**Igandea 25** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

**Astelehena 26** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Asteartea 27** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Asteazkena 28** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Osteguna 29** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loloia 9. Lasarte

**Ostirala 30** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Larunbata 31** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Igandea 01** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

LARUNBATETAN,  
Usurbilgo bi farmaziak ireki-  
ta egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
URRUTIA-MARTIN-HERNANI  
Etxeberri auzoa, 1. Florida  
943 55 77 38

**Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian dituzue ikusgai.**

# Agenda urria

## 22 osteguna

- "Buruntzaldeko Gazte Sortzaileak" dinamikaren aurkezpena 18:00etan Udarregi Ikastolako erdiko aretoan.
- Literatura solasaldia: "Joana Maiz" komikia 19:00etan Sutegiko auditorioan.

## 24 larunbata

- Zumarte Musika Eskolaren inaugurazio ekitaldia 12:30ean. Aurretik hiru bisita gidatu egingo dira: 11:00/11:30/12:00.
- Harria Hitz bisita gidatua. 11:00etan frontoian.

## 25 igandea

- Ordu aldaketa. 3:00etan 2:00ak izango dira.
- Buruntzaldeko Ibilbideen 13. Eguna.
- Laburbira. 9 film labur Sutegin. 18:00etan.

## Zumarte Musika Eskolaren inaugurazio ekitaldia

Zumarte eraikin berria Orbeldi Dantza Taldearen eta Zumarte Musika Eskolaren aterpe izango da. Birgaitze eta handitze lanen emaitzak bertatik bertara ezagutarazteko xedez, Udalak hiru bisita antolatu ditu larunbat honetarako. Bisiten ondoren hasiko da inaugurazio ekitaldia.

### Urriak 24, larunbata

- 11:00/11:30/12:00 Bisita gidatuak.
- 12:30 Inaugurazio ekitaldia.
- Izen ematea: hezkuntza@usurbil.eus
- Antolatzailea: Usurbilgo Udala.



Bisita gidatuak antolatu dira. Baina izena eman behar da alde aurretik.

## Harria Hitz, kultur adituen eskutik

### Urriak 24, larunbata

- 11:00 Usurbilgo frontoian.
- 11:05 Harria Hitz bisita gidatua herri-gunean, Xabier Gantzarainek eta Ismael Manterolak gidatuta.
- 12:00 Amaiera.
- 16:00 TXTXTX Txokoaldeko Txalapar-ta Txokora bisita.
- Prezioa: 5 euro.
- Izen ematea: 688 818 017 info@kultour.pro harriahitz.eus



Gehienez ere 15 lagunek eman dezakete izena.

### Datozenak

## Ixabel Agirresarobe ipuin kontalariak bi saio eskainiko ditu

### Urriak 27 asteartea

- 18:00 Ixabel Agirresarobe ipuin kontalaria. 4-5 urtekoentzat.

### Urriak 29 osteguna

- 18:00 Ixabel Agirresarobe ipuin kontalaria. 6 urtetik gorakoentzat.
- Oharrak: Gonbidapenak, usurbilkultura.eus bidez eskuratu behar dira (ekitaldi bakoitza ospatu baino bi egun lehenago beranduenez). Haurrak heldu batek lagunduta etor daitezke.

## Hitzaldi ugari iragarri dituzte KzGunean

"Gutxinaka normaltasuna berreskuratu eta aurrez aurreko formakuntzak ematen hasi gara", azaldu digute Usurbilgo KzGuneako ordezkariak.

Ikastaroak web orrialde honetan kontsulta daitezke: [www.kzgunea.eus/eu/hurrengo-ikastaroak](http://www.kzgunea.eus/eu/hurrengo-ikastaroak). Aurretiko hitzordua eskatzeko edo edozein zalantza argitzeko, hona deitu: 943 023 684 (KzGunea Usurbil).

Azaroan ere goizez egongo da zabalik. Abenduan ordea, KzGuneak arratsaldez irekiko ditu bere ateak.

**Usurbil Autoak**  
MEKANIKA-KARROZERIA

SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!

ZUMARTEGI INDUSTRIALDEA

943 36 10 79

EGUNEKO MENUA KARTA  
PLATER KONBINATUAK  
OGITARTEKOAK · TOSTAK  
MENU BEREZIAK

**ARTZABAL**  
BASERRIA · JATETXEA

943 36 91 39

[www.artzabaljatetxea.eus](http://www.artzabaljatetxea.eus)

# HONDAR AHOAK

## TELESAIL BERRIA, AZAROAN

 **GURE FIKZIOA LEHENA**

URRIAK 25, IGANDEA

# Laburbira

Euskarazko film laburren XVII. zirkuitua - 2020  
**URRIAK 25, 18:00 SUTEGIN**

SARRERA DOAN. Gonbidapena [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus) plataformaren bitartez hartu behar da.



**GAU BELTZA**  
Euskaltzalen Topagunea



**URAK DAKARRENA**  
Marilyn taldea



**ANTI**  
Josu Martinez



**TIGRE BAT**  
Amaia San Sebastián



**PIL PIL**  
Kristina Zarita



**MAMARRO**  
Ibon Iza Totorika



**KATEAK**  
Yolanda Mazkieran



**JAUZI ETA PRIXT**  
Maitane Eyheramato



**HARRIA HERRIA**  
Dimegaz Kultur Elkartea



**noaUA**



# Ofizioen Gida



**URDAINTZI**  
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76  
943 36 72 64  
urdaintzi@euzkainet.net

· ERAIKUNTZAK · OBRAK  
· BERRITZE LANAK

**Josue**  
Igeltseritza

Fax: 943 24 34 60  
Ataldu pol. ataldu, 28  
20170 - USURBIL

606 37 21 05

Igeltseritza orokorra

**Uraitz, s.l.**  
Igeltseritza  
Orokorra

Telefonia  
693 059 392

e-posta:  
uraitz@uraitz.com

Geltoki Kalea 15 behea, Lasarte-Oria

**ITZIRA**  
ERAIKUNTZAK

· gremioen koordinaketa  
· berritze lanak  
· sukaldeak  
· komunak

943 530 337  
607 119 313

errekatziki 7, USURBIL itzira@hotmail.es

**IRUARKAITZ**  
ERAIKUNTZAK, S.L.

· FATXADAK ETA TEILATUAK  
· ERAIKUNTZAK · BARRUKO BERRIKUNTZAK  
· URALITA KENTZEKO ENPRESA  
BAIMENDUA

630 90 02 79 AGINAGA



**PLAKODUR**

Eskaiola eta Pladurra

943 00 85 44 - 634 45 78 78



**Antonio**  
**URRUZOLA**  
**AROTZEGIA**

Tel/Fax: 943 376 415  
Asteasuain Industrialea, 3

**BARRENETXE**  
Salsamendi Arregi, Iñaki  
AROTZEGIA

943 362 664  
Barren Etxe kalea ZUBIETA

USURBIL  
**J. R. IBARGOEN S.L.**

ZURGINTZA-SUKALDEAK  
ALTZARI BEREZIAK

www.carpinteriaibargoien.arotzgi.net jr.ibargoien@arotzgi.net

943 36 14 48 - 676 45 31 76



**ARGILAN**

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859  
943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL



**antenas**  
**Telemar**

943 55 33 99  
info@antenastelemar.com

Elkano kalea 13, HERNANI



**APARICIO**  
DEKORAZIOA ETA  
PINTURA LANAK

Tel. 943 36 60 59 628 883 943  
Puntopax, 3 - 3.B. 20170 USURBIL



**Enrique Alonso**  
ITURGINTZA  
GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak  
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa  
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

**Iñaki**  
Iturgintza

BEROKUNTZA · GASA · AIRE EGOKITUA  
ZORU BERO-EMAILA  
ITURGINTZA · ENERGIA BERRITAGARRIAK  
info@inakiiturgintza.com · www.inakiiturgintza.com

Tfnoa.: 600 024 825

**Zuri**  
arrain  
iturgintza

TEL: 678 45 31 48 · 943 651 465  
zuriarraiturgintza@gmail.com

**Rafa**  
iturgindegia

· ITURGIN LAN OROKORRAK · DUTXAKO HANPARAK  
· KONFINDATZAKO GREHIOAK · KOHUNERO ALTZARIAK

Bordaberi kalea 1, 1 behea · 943 36 80 04



**XORGA TXIBI S.L.**  
KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak  
· beira bikoitza · segurtasun beirak  
· dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33 - 610 45 93 45  
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA



**maiz**  
hornigaiak

· TRESNERIA ETA ERREMINTAK  
· EGUR ETA AROTZ-LANETARAKO HORNIDURA

suministrosmaiz.com (ONLINE DENDA ERE)  
Ugaldea polig. 18, USURBIL 943 36 99 39